

**2004KO URRIAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 6 DE OCTUBRE DE 2004.**

Akta zenbakia: 12/2004

Bilera data: 2004-10-06

Bilera mota: Ohiko osoko bilkura

Deialdia: Lehenengoa

Ordua: 16.30 – 16:45

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Acta nº: 12/2004

Fecha: 06-10-2004

Tipo de reunión: Pleno ordinario

Convocatoria: Primera

Hora: 16:30 – 16:45

Lugar: Salón de plenos del Ayuntamiento

Bertaratutakoak:

Alkatea: Florentino Ugalde Atxaga

Reunidos:

Alcalde: Florentino Ugalde Atxaga

Zinegotziak:

Maria Isabel Vaquero Montero

Jose Luis Aramendi Goikoetxea

Maria Angeles Iriondo Mugica

Gaspar Esnaola Agesta

M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz

Hermenegildo Gonzalez Moran

Consuelo Frutos González

José Guirado Novo

Jose Maria Mugica Heras

Juan Maria Tomasena Alzuri

Concejales:

Maria Isabel Vaquero Montero

José Luis Aramendi Goikoetxea

Maria Ángeles Iriondo Múgica

Gaspar Esnaola Agesta

M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz

Hermenegildo González Morán

Consuelo Frutos González

José Guirado Novo

Jose Maria Mugica Heras

Juan Maria Tomasena Alzuri

Euren ezin etorria adierazi dutenak:

Jose Maria Aldanondo Ugalde

M^a Asuncion Guerra Alonso

Ausentes, que se han excusado:

Jose Maria Aldanondo Ugalde

M^a Asuncion Guerra Alonso

Bitarteko idazkaria:

Beatriz Garate Cortabarría

Secretaria interina:

Beatriz Garate Cortabarría

Aztergaiak:

1.- Aurreko aktak onartzea, bidezkoa bada.

2.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.

3.- Jose Maria Mugica Heras jaunaren zinegotzi kargu hartzea.

4.- Galde-eskeak.

Orden del día:

1.- Aprobación, si procede, de las actas anteriores.

2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

3.- Toma de posesión del cargo de concejal de Don Jose Maria Mugica Heras.

4.- Ruegos y preguntas.



**2004KO URRIAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 6 DE OCTUBRE DE 2004.**

1.- Aurreko aktak onartzea, bidezkoa bada.

Alkateak lehenengo gaia aurkeztu du, eta esan du 2004ko irailaren 22ko akta onartu behar dutela; era berean galdetu du ea inork baduen ezer esateko honen inguruan.

Ez da eztabaidarik izan, eta Udalbatzak aho batez onartu du 2004ko irailaren 22an egindako udalbatzarraren akta.

1.- Aprobación, si procede, de las actas anteriores.

El alcalde ha presentado este punto señalando que hay que aprobar el acta del 22 de septiembre; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a este respecto.

No se ha producido ninguna discusión, y el Pleno ha aprobado de forma unánime el acta de la sesión plenaria celebrada el 22 de septiembre de 2004.

2.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.

2004ko uztailaren 23tik 2004ko irailaren 30era bitarteko Alkatezako dekretuen berri eman zaie udal batzarkideei, deialdiarekin batera banatutakoena.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik eskatu du hitza, eta esan du alkate dekretuen artean zortzi bat-edo industria jardueri buruzkoak direla, eta ez daukatela udalaren baimenik eta are galdetu egin zaiela jarduera hori egiten ote duten; hori dela eta, zinegotziak galdetu du nola has daitekeen jarduera bat udalaren baimenik izan gabe. Alkateak erantzun dio noizean behin ikuskatu egiten dutela industria poligonoetan aktibitate berririk ba ote dagoen jakiteko; aldaketak izaten direnean, ez zaio Udalari jakinarazten eta orduan erregularizatu egiten da; ikuskatze horretan ikusten denean aktibitate berriak daudela erregularizatzeko eskatzen zaie.


Era berean, 2004ko uztailaren 22an Herriko Gobernu Batzarrak egindako bilkuraren aktaren

2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de los decretos de Alcaldía emitidos desde el 23 de julio de 2004 hasta el 30 de septiembre de 2004, enviados junto con la convocatoria.

Ha pedido la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri para comentar que entre las resoluciones de Alcaldía aparecen unos ocho casos sobre actividades industriales, en las que se carece de licencia municipal o incluso se pregunta si se está realizando esa actividad; entonces el concejal pregunta cómo se puede iniciar una actividad sin licencia municipal. El alcalde le ha respondido diciendo que de vez en cuando se inspeccionan los polígonos industriales, para saber si existe alguna nueva actividad; cuando hay cambios en algunas actividades, no se le comunica al Ayuntamiento, y entonces se procede a su regularización; cuando en esas inspecciones se perciben nuevas actividades, se exige su regularización.

Asimismo, se ha dado cuenta del acta de la sesión celebrada por la Junta de Gobierno Local



2004KO URRIAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE OCTUBRE DE 2004.

berri eman zaie udalbatzarkideei. Beraz, el 22 de julio de 2004. Por tanto, han quedado jakinaren gainean geratu dira. informados.

PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek eskatu du hitza, eta esan du Herriko Gobernu Batzarraren akta batzuk falta dituztela, hain zuzen, abuztuaren 5koa, irailaren 16koa eta irailaren 20koa. Udaleko idazkariak erantzun dio akta horiek oraindik onartzeko dituela Herriko Gobernu Batzarrak; izan ere, oraindik ez dituzte bidali; esan du Herriko Gobernu Batzarraren osteguneko gai zerrendan sartu dituztela abuztuaren 5etik irailaren 20ra bitartean egindako bilkuren aktak eta hauek onartu ondoren, bidaliko zaizkiela.

Ha pedido la palabra el concejal del PSE-EE Hermenegildo González Morán para mencionar que les faltan las actas de la Junta de Gobierno Local, de los días 5 de agosto, 16 de septiembre y 20 de septiembre. Le contesta la secretaria municipal que estas actas todavía no han sido aprobadas por la Junta de Gobierno Local y esa es la razón por la que no se les han enviado, que este jueves está en el orden del día de la sesión ordinaria de la Junta de Gobierno Local aprobar las actas desde el 5 de agosto hasta la última celebrada el 20 de septiembre y una vez aprobadas, se les remitirá.

3.- Jose Maria Mugica Heras jaunaren zinegotzi kargu hartzea.

Alkateak azaldu du egin beharreko tramite guztiak bete eta gero, Jose Maria Mugica Heras jaunak kargua hartuko duela.

Izendapen-agiriak zuzenak direla ikusita eta zinegotzien kargu-hartzea egiteko legeak agindutako izapideak bete ondoren, Jose Maria Mugica Heras jaunak zinegotzi kargua hartu du.

Alkateak esan du, nahiz eta puntu bezala ez azaldu gai zerrendan, gaur zehaztu nahi lukeela Jose Manuel Funesek zituen ordezkariak, bai sozietateetakoak eta bai informazio batzordeetakoak, Jose Maria Mugica Heras zinegotziak hartuko ote dituen edo bestela aldaketak izango ote diren.

PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez


3.- Toma de posesión del cargo de concejal de Don Jose Maria Mugica Heras.

El alcalde ha explicado que, tras cumplir con todos los trámites necesarios, don José María Múgica Heras tomará posesión del cargo de concejal.

Visto que los documentos de nombramiento son correctos y tras cumplir todos los trámites dispuestos por la Ley para la toma de posesión del cargo de concejal, Don José María Múgica Heras ha tomado posesión del cargo de concejal.

El alcalde ha señalado que, si bien no figura como punto a tratar en el orden del día, quisiera concretar de alguna manera si las representaciones de José Manuel Funes, tanto las de las sociedades como las de las comisiones informativas, las va a asumir José María Múgica Heras o si bien van a plantear algunas modificaciones.

Toma la palabra el concejal del PSE-EE,



2004KO URRIAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE OCTUBRE DE 2004.

Moranek hartu du hitza, eta esan du Kontratazio eta Langileriaren Batzordeko tituluduna bera izango dela eta Jose Manuel Funesek Ogasun, Ondare eta Enplegu Batzordean zuen ordezkoko kargua M. Teresa Pagazaurtundua Ruizek hartuko duela; Urnietatek Sozietate Publikoaren kontseilari, berriz, Consuelo Frutos Gonzalez izango da.

Horrenbestez, informazio batzordeak honela osatuko dira:

Hermenegildo González Morán para expresar que en la Comisión de Contrataciones y Personal pasaría él mismo a ser titular y en la Comisión de Hacienda, Patrimonio y Empleo pasaría como suplente, puesto que ocupaba José Manuel Funes Rivas, M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz; en la Sociedad Pública Urnietatek pasaría a ser consejera Consuelo Frutos González.


Por lo tanto, la composición de las Comisiones Informativas queda como sigue:

HIRIGINTZA, OBRAK ETA LANDA MUNDUA: URBANISMO, OBRAS Y MUNDO RURAL

Talde politikoa	Zinegotziak	Grupo político	Concejales
EAJ/EA	Florentino Ugalde Atxaga (Lehendakaria)	PNV/EA	Florentino Ugalde Atxaga (presidente)
EAJ/EA	M. Isabel Vaquero Montero	PNV/EA	M ^a Isabel Vaquero Montero
EAJ/EA	Jose Luis Aramendi Goikoetxea (Ordezkoa)	PNV/EA	Jose Luis Aramendi Goikoetxea (suplente)
PSE-EE/PSOE	Hermenegildo Gonzalez Moran	PSE-EE/PSOE	Hermenegildo González Morán
PSE-EE/PSOE	M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz (Ordezkoa)	PSE-EE/PSOE	M ^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz (suplente)
EB	Juan Maria Tomasena Alzuri	IU	Juan Maria Tomasena Alzuri
PP	M. Asuncion Guerra Alonso	PP	M ^a Asuncion Guerra Alonso

HEZKUNTZA, EUSKARA, HAURTZAROA ETA GAZTERIA: EDUCACIÓN, EUSKERA, INFANCIA Y JUVENTUD:

Talde politikoa	Zinegotziak	Grupo político	Concejales
EAJ/EA	M. Isabel Vaquero Montero (Lehendakaria)	PNV/EA	M ^a Isabel Vaquero Montero (presidente)
EAJ/EA	Gaspar Esnaola Agesta	PNV/EA	Gaspar Esnaola Agesta
EAJ/EA	M. Angeles Iriondo Mugika (Ordezkoa)	PNV/EA	M ^a Angeles Iriondo Mugika (suplente)
PSE-EE/PSOE	M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz	PSE-EE/PSOE	M ^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz
PSE-EE/PSOE	Jose Guirado Novo (Ordezkoa)	PSE-EE/PSOE	Jose Guirado Novo (suplente)
EB	Juan Maria Tomasena Alzuri	IU	Juan Maria Tomasena Alzuri
PP	M. Asuncion Guerra Alonso	PP	M ^a Asuncion Guerra Alonso



2004KO URRIAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE OCTUBRE DE 2004.

GIZARTE ONGIZATEA, OSASUNA ETA BIENESTAR SOCIAL, SALUD Y MUJER.

EMAKUMEA:

Talde politikoa	Zinegotziak	Grupo político	Concejales
EAJ/EA	M. Angeles Iriondo Mugika (Lehendakaria)	PNV/EA	M ^a Angeles Iriondo Mugika (presidente)
EAJ/EA	M. Isabel Vaquero Montero	PNV/EA	M ^a Isabel Vaquero Montero
EAJ/EA	Jose M. Aldanondo Ugalde (Ordezkoa)	PNV/EA	Jose M ^a Aldanondo Ugalde (suplente)
PSE-EE/PSOE	Consuelo Frutos Gonzalez	PSE-EE/PSOE	Consuelo Frutos González
PSE-EE/PSOE	Hermenegildo Gonzalez Moran (Ordezkoa)	PSE-EE/PSOE	Hermenegildo González Morán (suplente)
EB	Juan Maria Tomasena Alzuri	IU	Juan Maria Tomasena Alzuri
PP	M. Asuncion Guerra Alonso	PP	M ^a Asuncion Guerra Alonso

OGASUNA, ONDAREA ETA ENPLEGUA:


Talde politikoa	Zinegotziak	Grupo político	Concejales
EAJ/EA	Jose M. Aldanondo Ugalde (Lehendakaria)	PNV/EA	Jose M ^a Aldanondo Ugalde (presidente)
EAJ/EA	Jose Luis Aramendi Goikoetxea	PNV/EA	Jose Luis Aramendi Goikoetxea
EAJ/EA	M. Isabel Vaquero Montero (Ordezkoa)	PNV/EA	M ^a Isabel Vaquero Montero (suplente)
PSE-EE/PSOE	Hermenegildo Gonzalez Moran	PSE-EE/PSOE	Hermenegildo González Morán
PSE-EE/PSOE	M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz (Ordezkoa)	PSE-EE/PSOE	M ^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz (suplente)
EB	Juan Maria Tomasena Alzuri	IU	Juan Maria Tomasena Alzuri
PP	M. Asuncion Guerra Alonso	PP	M ^a Asuncion Guerra Alonso

HACIENDA, PATRIMONIO Y EMPLEO:

KONTRATAZIOAK ETA LANGILERIA:

Talde politikoa	Zinegotziak	Grupo político	Concejales
EAJ/EA	Gaspar Esnaola Agesta (Lehendakaria)	PNV/EA	Gaspar Esnaola Agesta (presidente)
EAJ/EA	Jose M. Aldanondo Ugalde	PNV/EA	Jose M ^a Aldanondo Ugalde
EAJ/EA	M. Isabel Vaquero Montero (Ordezkoa)	PNV/EA	M ^a Isabel Vaquero Montero (suplente)
PSE-EE/PSOE	Hermenegildo Gonzalez Moran	PSE-EE/PSOE	Hermenegildo Gonzalez Moran
PSE-EE/PSOE	Consuelo Frutos Gonzalez (Ordezkoa)	PSE-EE/PSOE	Consuelo Frutos González (suplente)
EB	Juan Maria Tomasena Alzuri	IU	Juan Maria Tomasena Alzuri
PP	M. Asuncion Guerra Alonso	PP	M ^a Asuncion Guerra Alonso

CONTRATACIONES Y PERSONAL.



2004KO URRIAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE OCTUBRE DE 2004.

KULTURA ETA KIROLA:

Talde politikoa	Zinegotziak
EAJ/EA	Jose Luis Aramendi Goikoetxea (Lehendakaria)
EAJ/EA	M. Isabel Vaquero Montero
EAJ/EA	M. Angeles Iriondo Mugika (Ordezkoa)
PSE-EE/PSOE	Jose Guirado Novo
PSE-EE/PSOE	M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz (Ordezkoa)
EB	Juan Maria Tomasena Alzuri
PP	M. Asuncion Guerra Alonso

CULTURA Y DEPORTE.

Grupo político	Concejales
PNV/EA	Jose Luis Aramendi Goikoetxea (presidente)
PNV/EA	M ^a Isabel Vaquero Montero
PNV/EA	M ^a Angeles Iriondo Mugika (suplente)
PSE-EE/PSOE	José Guirado Novo
PSE-EE/PSOE	M ^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz (suplente)
IU	Juan Maria Tomasena Alzuri
PP	M ^a Asuncion Guerra Alonso

4.- Galde-eskeak.


Alkateak galdetu du inork ezer galdetzeko ba al duen.

PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta esan du Udalari kexa bat azaldu nahi diola bere udal taldearen kontra jarritako pankarta bat kendu ez zutelako. Izan ere, uste du denbora asko pasatu zela hura kendu zutenerako, kontuan izanik gainera festak zirela; horregatik, kexa hori jasota geratzea nahi du. Gero, Miraballesko lurri buruz galdetu du; esan du gaur oraindik 2003ko irailaren hasitako jardura egiten ari direla hor; adierazi du 2003ko urriaren 9an Administrazio Kontseiluko lehendakariak esan ziela lauzpabost hilabeteko kontratu bat gauzatuko zutela, 900 euroko alokairua ordainduta, eta gaur oraindik ez dutela ikusi kontratu hori eta ez dakitela zergatik ari diren jardura horretan sei hilabeteren buruan; galdetu du nola dagoen hori guztia. Alkateak erantzun dio, alde batetik, kontratua egin dagoela, eta, bestetik, esan du nahiz eta Renfek esan lau edo bost hilabeteko lana zutela, lehengo astean beraiekin egon zela eta oraindik ez dutela egin Urnietako eta Andoaingo tunelaren zatia; orduan, lur horiek

4.- Ruegos y preguntas.

El alcalde ha preguntado si alguien tiene algo que comentar.

Ha pedido la palabra el concejal del PSE-E, Hermenegildo González Morán para manifestar una queja ante el Ayuntamiento por la no retirada de una pancarta que se colocó contra su grupo municipal, ya que consideran que se ha tardado bastante en retirar, teniendo en cuenta además que eran fiestas, por lo tanto quiere hacer constar esta queja. Después ha preguntado sobre los terrenos Miravalles, que a día de hoy sigue con la actividad iniciada en septiembre de 2003; ha comentado que el 9 de octubre del 2003 se les informó por parte del presidente del Consejo de Administración que se formalizaría un contrato de cuatro o cinco meses con un alquiler de 900 euros y a día de hoy no han visto el contrato y que desconocen por qué después de seis meses sigue desarrollándose esa actividad; pregunta en qué condiciones se encuentra todo esto. El alcalde le ha respondido que, por una parte, el contrato ya se formalizó, y por otra parte, ha señalado que, aunque RENFE les aseguró que las obras durarían unos cuatro o cinco meses, la semana pasada se reunió con ellos y le

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Sipuzkou*

2004KO URRIAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE OCTUBRE DE 2004.

behar ez dituzten bitartean, ez diola garrantzi handiagorik eman.


PSE-EEko zinegotziak esan du nolnahi ere kontratua ikusi nahi duela eta posible ote den galdetu du. Alkateak baietz erantzun dio. Gero, Hermenegildo Gonzalez Moranek esan du aspaldi dakitela Saletxeberriko apartamentuak logela gisa alokatzen ari direla, eta are jendea hor bizitzen ari dela; galdetu du nola uzten duten horrelakorik. Alkateak erantzun dio galdera hori behin baino gehiagotan egin diotela eta berak ez daukala inolako konstantziarik hor gelak alokatzen direnik; esan du hor okupatzaileak sartzeko saio bat izan zela eta garajeetako sarrerak itxi zituztela eta zaintzaileak jarri zituztela; badaki zaintzaile horiek badaudela baina, gainerakoan, behin eta berriz ukatu diote hor etxebizitzak alokatzen dituztenik; esan du udaltzainak bidal ditzaketela etxeak ikuska ditzaten, hori egia ote den jakiteko. PSE-EEko zinegotziak esan dio etxebizitzetako bat egunero dagoela okupatua, eta are eguzkitakoak jartzen dituztela balkoian. Alkateak erantzun dio hor zaintzaileak egoten direla, 24 orduz egoten dela hor zaintzaile bat.

Horren ostean, Hermenegildo Gonzalez Moranek galdetu du LKS Constultores enpresaren txostenari buruz; izan ere, maiatzaren 14an idatziz eskatu zuten hori, eta maiatzaren 26an erantzun zioten txostena izatean bidaliko zirela, baina oraindik ez dute jaso, eta galdetu du kontu hori zertan den. Alkateak erantzun dio batzorde batean emango zaiela txostena, batzorde batera deituko dituztela eta txostena hor azalduko dutela.

comentaron que todavía no han construido la parte del túnel de Urnieta-Andoain; por tanto, mientras no necesiten esos terrenos, no le ha dado mayor importancia.

El concejal del PSE-EE dice que de todas formas le gustaría ver el contrato y pregunta si es posible, a lo que el alcalde le responde afirmativamente. Después Hermenegildo González Morán comenta que hace tiempo tienen conocimiento de que los apartamentos de Saletxeberri se están alquilando como habitaciones y que incluso hay gente viviendo allí; pregunta cómo se está permitiendo eso. El alcalde le ha respondido que esa pregunta se la han formulado en reiteradas ocasiones y que él no tiene ninguna constancia de que se alquilen habitaciones; ha señalado que hubo un intento de ocupar el edificio, y que tapiaron las entradas de los garajes y contrataron a guardas; ha comentado que tiene constancia de la presencia de guardas, pero que, por lo demás, le han negado una y otra vez el hecho de que se alquilen apartamentos; ha señalado que lo que pueden hacer es enviar a los municipales para que inspeccionen el edificio, a fin de aclarar si ese rumor es cierto. Le dice el concejal del PSE-EE que una vivienda está ocupada todos los días, que incluso ponen sombrillas en el balcón. El alcalde le ha respondido que ese apartamento está ocupado por guardas, que las 24 horas hay un guarda.

Después Hermenegildo González Morán pregunta por el informe de LKS Consultores, petición que realizaron el 14 de mayo por escrito y que se les contestó el 26 de mayo que cuando se tuviera el informe se les remitiría y a día de hoy no lo han recibido, pregunta cómo está este tema. El alcalde le ha respondido que el informe lo repartirán en una comisión, que tienen previsto convocar una comisión donde explicarán el contenido del informe.



**2004KO URRIAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 6 DE OCTUBRE DE 2004.**

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da arratsaldeko bostak laurden gutxiagotan eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, alkatearen oniritziarekin, hala ziurtatu dut, Urnietan 2004ko urriaren 7an.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco menos cuarto se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del alcalde, en Urnieta a 7 de octubre de 2004.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarría
Bitarteko idazkaria,

Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria,